



ARAU-ERAGINARI BURUZKO MEMORIA

AGINDUA, EUSKAL AUTONOMIA ERIKIDEGOAN JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOKO LANBIDEETAN JARDUTEKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA ETA ESPERIENTZIA EGOKIA ARAUTZEKOA.

I. JUSTIFIKAZIOA

2022ko uztailaren 20an sartu zen indarrean 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa. 8/2022 Legearen zenbait xedapenetan lege horretan araututako lanbideetako batean jarduten duten pertsonak garatu beharreko jarduerarako prestakuntza espezifikoa edo esperientzia egokia izatea ezartzen da, dagokion gaikuntza profesional nagusiaz gain. Besteak beste, aipatutako legearen 8.5 artikulua ezartzen du kirol-modalitate edo –azpimodalitate bakar batera espezifikoki bideratuta dauden eta kirolaren hobekuntza teknikoaren edo erdiko mailan egiten diren irakaskuntza– eta ikaskuntza-jardueretan kirol-monitore gisa jardun ahal izango dutela Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioaren bat dutenek, baldin eta “prestakuntza espezifikoa edo esperientzia egokia badute dagokion kirol-modalitate edo -azpimodalitatean”. Legearen xedea da orotariko prestakuntza akademikoa duten pertsonak parte hartu ahal izatea, baldin dagokion esku-hartze profesionaleko eremuan prestakuntza espezifikoa edo esperientzia egokia badute.

Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen hirugarren xedapen gehigarriko laugarren apartatuak mandatu bat jasotzen du prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren arlo horretan legea erregelamendu bidez garatzeko.

Halaber, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriak ezartzen du lege horretan araututako lanbideren batean ari diren pertsonak, nagusiki adingabeekin praktikatzen diren kirol-jardueretan bertan egoteko betebeharra dutenean, sexu-indarkeriaren prebentzioarako eta genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza dutela egiaztatzea beharko dute.

Lanbide-kualifikazioen eskakizuna 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da eraginkorra; hortaz, eragile nagusi guztiek, hala nola prestakuntza-zentroek, kirol-erakundeek, administrazio publikoek eta jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalek, ahalik eta lasterren ezagutu behar dituzte prestakuntza espezifikoa edo esperientzia egoki horren gutxienezko baldintzak, bai eta sexu-indarkeriaren prebentzioaren, genero-ikuspegiaren eta hezkidetzaren arloan eska daitezkeen prestakuntzenak ere.





Agindu hori ez dago Urteko Plan Arauemailean. Nolanahi ere, komeni da gogoraztea justizia-epaitegietan, xedapen orokorrak aurkaratu direnean Urteko Plan Arauemailean aurreikusita ez zeudelako, honako ondorio hauek eman direla, besteak beste:

«(...) administrazio publikoak ez daude mugatuta beren legezko eta arauzko ahalmenetan dagokion ekimena ez delako plan arauemailean sartu urtebeteko aurrerapenaz; izan ere, ezerk ez du eragozten plangintzan aurreikusi ez direnak onetsi ahal izatea. Plan arauemailea tresna programatikoa da, balio arauemailerik ez duena; eta, beraz, ezin du eraginik izan Ordenantzaren balioan». (ikus Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko azaroaren 24ko epaia).

Hau da, ezin da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren arauzko boterea mugatu ekimena ez zegoelako jasota urteko plan arauemailean. Izan ere, plan arauemailea tresna programatikoa da, balio arauemailerik ez duena; eta, gainera, ezin ditu aintzat hartu esku artean daukaguna bezalako xedapenak premia onestea behartzen duten arauzko gorabehera guztiak.

2025eko urtarrilaren 28an, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntzako Politikako sailburuak jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jarduteko prestakuntza espezifikoa eta esperientzia egokiari buruzko Aginduaren proiektua egiteko eta izapidetzeko agindua eman zuen.

Arau-eraginari buruzko memoria horretan agindu-proiektu honen eskumenen eremuari lotutako honako esparru hauek aztertzen ditu: xedea; beharra; arau-proiektuaren aukera; eraginaren analisia; proposatutako arauaren analisi juridikoa eta behin betiko onestera bideratutako prozedurazko itera.

II. ESKUMENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12.1 artikulua ezartzen du xedapen horien gaiaren arloko eskumena duen saileko sailburu titularren aginduz hasiko dela prozedura hori. Izan ere, testu hori izango da araua egiteko prozeduraren funtsezko oinarri eta ardatz nagusi.

Horretarako, lege-ekimen honen oinarri dira Euskadiko Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari emandako kirol-arloko eskumenak, Konstituzioaren 148.1.19 artikuluari lotuta. Hain zuzen, Estatutuaren 10.36 artikulua xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du kirolaren arloan. Halaber, 10.22 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du elkargo profesionalen eta tituludun lanbideen arloan, alde batera utzi gabe Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan ezarritakoa.



Prestatzen ari garen araua kirolari buruzkoa da, eta gai hori Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 6.1.g) artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Aurretik aipatutakoaren harira, prozedura hasteko agindua emateko eskumena gaiaren arloko eskumena duen saileko sailburu titularrarena da.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren arabera, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan aipatzen diren eskumenak dagozkio sail horren sailburuari, eta sail berari dagozkio funtzio eta jardun-arloetan indarrean dauden xedapenek bere egiteko ematen dizkioten guztiak ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak xedatutakoaren ondorioz.

Hortaz, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua xedatzen du sailburuei dagokiela beren sailari dagozkion gaietako xedapen orokorrak egitea.

III. ARAUAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Aginduaren honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako prestakuntza espezifikokoaren edo esperientzia egokiaren eskakizunak arautzea, dagokion lanbidea garatzeko legeak ezarritako eremuetan, egoeretan edo kolektibo berezietan.

IV. ARAUA ONESTEKO BEHARRIZANA ETA EGOKITASUNA

Arau-proiektuaren jatorria Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen garapena da, eta, lege horren artikuluetan, legez garatu beharra aipatzen da hainbatetan (ikus 8.5 artikulua, 3. xedapen gehigarriko 4. apartatua eta 12. xedapen gehigarria).

Aginduak 8/2022 Legea erabat eta modu eraginkorrean aplikatzeko helburua lortzeko beharrezkoak diren lege-oinarriak eta oinarri materialak eskaintzen ditu, bai eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera lanbide-kualifikazioak eskatzeko ere.

Hortaz, arau-proiektua Administrazioak egin behar du, eta hura egitera behartuta dago, jatorria eta justifikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko



lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen erregelamendu bidezko garapenean baititu.

V. IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Ez dago bestelako aukera erregulatzailerik; izan ere, ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzeko erregelamendua da, eta arauan bertan ezartzen da Legearen hainbat alderdi erregelamendu bidez garatzeko beharra.

VI. ERAGINAREN AZTERKETA

a) Arau-aginduan duen eragina

Proiektatutako araua onesteak ordenamendu juridikoaren esparrua berritzea dakar; izan ere, lehenengo aldiz arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan prestakuntza espezifikoa eta esperientzia egokia izateko betebeharra. Hortaz, ez du eraginik indarrean dagoen ordenamendu juridikoan.

b) Aurrekontu-aginduan duen eragina

Proposatutako araua onesteak ez du gastu publikoa nabarmen areagotuko.

Lehenik eta behin, aginduak prestakuntza-ekintzen eta esperientziaren baldintzak eta esperientzia hori aitortzeko modua baino ez dituelako ezartzen.

Bigarrenik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak *online* eta dohain eskaintzen dituelako prestakuntza-ekintzak, eta, horrexegatik ez da antzematen karga ekonomikorik dagoenik prestakuntza hori egiaztatzeraz behartuta dauden pertsonentzat.

c) Eragina karga administratiboen ikuspuntutik

Proposatutako araua indarrean sartzearen ondoriozko karga administratiboak kirolaren arloan funtzioak bere gain hartzen dituen administrazio-organoaren zerbitzuek hartuko dituzte bere gain; hala ere, ez da aurreikusten berariazko baliabide materialak edo giza baliabideak bideratu behar direnik xede horretarako.

d) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina

Aginduan hizkuntza-normalizazioarekin lotutako xedapen batzuk jasotzen dira. Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 5. artikuluan ezartzen da lege horren arau-garapenean lege horretan adierazten diren hizkuntza-eskubideak bermatzeko beste neurri batzuk jasoko direla. Agindu hori betetzeko, bigarren xedapen gehigarrian zehazten da herritarren



hizkuntza-eskubideak bermatzeko xedez Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak prestakuntza espezifikoa sustatuko dituela Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

e) Izaera sozialeko eragina

Kontratutako kirol arloko langileak dituzten pertsonak edo kirol-elkarte pribatu zein publikoak identifikatzen dira subjektu interesduntzat, baldin eta langile horiek honako lanbide hauetan jarduten badute: kirol-entrenatzailea, kirol-monitorea edo/eta kirol-zuzendaria, jarduera gauzatzean bertan egoteko betebeharra badute; bai eta eskola-kiroleko kirol anitzeko jardueretako monitore- eta entrenatzaile-laguntzaileak ere.

Zehazki, honako hauek identifikatzen dira: Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurraldeko kirol-federazioak; jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalen bidez kirol-zerbitzuak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrriak, tokiko erakundeak eta gainerako administrazio publikoak; egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten kirol-klub edo -taldeak eta -enpresak.

f) Gazteengan duen eragina

Aginduak adingabeei eragiten dieten zenbait aurreikuspen gehitzen ditu hirugarren xedapen gehigarrian. Izan ere, xedapen horrek zehazten du ekainaren 30eko 8/2022 Legeak araututako lanbideren batean ari diren pertsona guztiek, nagusiki adingabeekin praktikatzen diren kirol-jardueretan bertan egoteko betebeharra dutenean, sexu-indarkeriaren prebentziorako eta genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza dutela egiaztatu beharko dute. Prestakuntza bakoitzaren iraupena gutxienez lau ordukoa izango da. Lanbide-jarduna irakaskuntzan gauzatzen dutenen kasuan, beharrezkoa izango da, halaber, hezkidetzako prestakuntza egiaztatzea.

Era berean, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legearen 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du prestakuntza-ekintzek ere aintzat hartu behar dituztela desgaitasunen bat duten, arraza-, etnia- edo nazio-jatorri desberdina duten, desabantaila ekonomikoko egoeran dauden, LGTBI kolektiboko kide diren edo beste edozein aukera edo orientazio sexual edo genero-identitate duten eta inoren kargura ez dauden adingabeen premia espezifikoa.

g) Haur eta nerabeen gaineko eragina

Ut supra aipatutako hirugarren xedapen gehigarriak, adingabeei eragiten dieten aurreikuspenak hartzen dituenek, haur eta nerabeen gaineko eragina du. Ondorio horietarako, aurreko apartatutan adierazitako alegazio berberak aplikatu behar dira.



h) Ingurumenaren arloko eragina

Aginduak ez du eragin nabarmenik ingurumenean, dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez prestakuntza egiaztatzeko baldintzak eta prozedura besterik ez baititu xede.

Nabarmendu behar da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak behartu egiten dituela bitarteko elektronikoak erabiltzera dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua honako hau dio: «Erregelamenduz, administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztatuturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela».

Paperik gabeko administrazio batek, funtzionamendu erabat elektronikoa oinarriturik, efikazia- eta efizientzia-printzipioak egokiago betetzeaz gain, kostuak aurrezten dizkie herritar eta enpresei, eta interesdunen bermeak indartu ere egiten ditu. Paperik gabeko administrazioari esker Administrazioek aurreztu dezakete, bereziki honako alderdi hauen ondorioz:

- Paper tonak aurrezten dira.
- Dokumentuak inprimatzeko tonerrak aurrezten dira.
- Posta bidezko korreoa aurrezten da.

Biltegitratzeko espazio fisikoa aurrezten da.

Administrazio Publiko bakoitzak aurreztu dezakeen diru-kopurua aintzat hartu ahal izateko, Europako Batzordeak garatutako Standard Cost Model (SCM) metodoa kontuan hartuko dugu:

- Aurrez aurreko izapidea batez beste 80 euro izaten da.
- Izapide telematikoa batez beste 5 euro izaten da.

Izapide elektronikoa bakoitzeko aurrezkoa ez da soilik ekonomikoa. Papera baliabide natural bat da, eta zuhaitzen zelulosa-zuntzen bidez fabrikatzen da. Zuhaitz batekin 12.000 orrialde egin daitezkeela kalkulatu da.

Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian eskatzen diren eta agindu-zirriborroaren hirugarren xedapen gehigarrian arautzen diren prestakuntzak *online*



egin daitezke. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak hala eskaintzen ditu antzeko prestakuntza-jarduerak. Bestetik, ezin dugu alde batera utzi *online* prestakuntzak edo urrutiko irakaskuntzak askotariko abantailak dituela teknologia berriei esker, eta *online* ikastaroek aparteko eragin positiboak dituztela ingurumenean, kutsadura-eragina neurri handi batean murrizten baita. Azterlanen arabera, modalitate birtualeko ikastaroak eskaintzeak % 90eko gastu energetiko txikiagoa dakar eta CO2 igorpenen % 87 gutxiago sortzen da aurrez aurreko heziketa-metodoekin alderatuta. Datu horiek agerian jartzen dute urrutiko hezkuntza oso neurri efizientea dela hezkuntzaren ingurumen-eragina neurri handi batean murrizteko.

Tresna digitaletan oinarritutako hezkuntza-metodologia ezarrita, formatu fisikoko materialak baliabide birtualekin ordez daitezke; eta, azken horiek infinituak eta berrerabilgarriak dira. Halaber, urrutiko prestakuntzarako ez da instalazio berririk eraiki, egokitu edo erosi behar. Horrelako lanek gastu energetikoan eta baliabideen kontsumoan eragiten dute, eta baliabideak gero eta eskasagoak dira gure planetan.

i) Irisgarritasun unibertsala

Aginduan zehazten da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalentzako informazioan eta dokumentazioan 112/2018 Errege Dekretuan (irailaren 7koa, sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa) ezarritako gardentasun-eskakizunak bermatu beharko direla.

j) Enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina

Proiektatutako arauaren xedeak ez du inolako eraginik enpresak sortu, abiarazi eta enpresa horien funtzionamenduari dagokionez, eta, beraz, ez da beharrezkoa enpresen gaineko txostena egitea (ekainaren 28ko 16/2012 Legeak, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoak, 6. artikuluan aurreikusitakoa).

k) Generoaren araberako eragina

Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartu ziren generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioa egitearekin eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak gehitzearekin lotutako eragina aurrez ebaluatzeko ildoak.

Horiek horrela, agindu-proiektuaren memoria ofizialarekin batera, generoaren eraginari lotutako azterlan xehatu bat gehitu beharko da. Hala ere, azpimarratu behar da gaur egun ekainaren 30eko 8/2022 Legea den arau-proiektuaren izapidetze administratiboa egin bitartean adierazitakoa, hau da, jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideen munduan emakumeak duen presentzia gizonen maila kuantitatiboa lortzetik urrun dagoela.



Emakumeen azpiordezkaritza nabarmena dago abiapuntuan; eta, ondorioz, baita desberdinkeria ere.

EAEEn kirolera bideratutako baliabideen laneko egoerari eta kualifikazio profesionalaren egoerari buruz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak 2016an argitaratutako azterlanaren arabera (azterlana), EAEEn jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideak gauzatzean desparekotasuna nabarmena dela agerian uzten duten datuak daude:

a) Euskadin kirolera bideratutako giza baliabide profesionalen profil soziodemografikoaren kasuan, emakumezkoak % 26,9 ziren, eta gizonezkoak, aldiz, % 73,1. Egoera hori agerikoagoa da kirol-zuzendarien kasuan, % 81,85 gizonezkoak baitira.

b) Azterlanak agerian jartzen du eremu jakin batzuen maskulinizazioa:

- Maila aurreratuko modalitateko/diziplinetako monitorea (% 89,2).
- Goi errendimenduko modalitate edo diziplinetako entrenatzaileak (% 94,8).
- Forma fisikoa berreskuratzeko eta hobetzeko entrenatzaileak (% 93,8).
- Goi errendimenduko modalitate edo diziplinetako zuzendariak (% 94).

c) Emakumezkoek jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan duten presentzia honako arlo hauetan areagotzen da:

- Egokitzen fisikoko jardueretako monitorea (% 55,1).
- Arreta berezia behar duten pertsonen bideratutako jardueretako monitorea (% 64).
- Kirol anitzeko eskola-kiroleko jardueretako entrenatzaileak (% 37,4).
- Animazioko kirol-jardueretako kirol-zuzendariak (% 35,1).

Egoera horren ondorioz, 8/2022 Legeak, zioen azalpenean jaso bezala, lanaren eremuan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren arloari arreta berezia eskaintzen dio. Hortaz, testuan, besteak beste, tratu- eta aukera-berdintasunerako politikak egitea sustatzen da, legean araututako lanbideetarako sarbideari dagokionez, lanbidea gauzatzeari dagokionez, sustapen profesionalaren esparruan, etab.

Aginduak, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzeko, xedapen gehigarri espezifiko bat gehitzen du sexu-indarkeriaren prebentzioaren, genero-ikuspegiaren eta hezkidetzaren arloko prestakuntzari buruz, eta xedapen horretan garatzen dira Legearen aurreikuspenak.



VII. ARAUAREN EDUKIA

a) Arautze egokiaren printzipioak eta arauaren kalitatea

Agindu-proiektua bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan jasotako arautze egokiaren eta arau-kalitatearen printzipioekin.

Arauk interes orokor bat du, eta beharrizan-printzipioa betetzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen bosgarren xedapen gehigarria eta hamabigarren xedapen gehigarria erregelamendu bidez garatzeko manua errespetatu nahi baitu. Agindu hau gabe ezin da legearen eskakizuna aplikatu.

Proporzionaltasun-printzipioa dela eta, aginduak xedea betetzeko ezinbesteko gutxieneko neurriak ezartzen ditu, gehiegizko karga administratibo eta ekonomikorik sortu gabe. Adierazi den bezala, prestakuntza espezifikoa eta esperientzia egokia aitortzeko tresna den aldetik, aginduan erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea aurreikusten da. Labur esanda, ez dago aginduaren helburuak betetzeko beste neurri ez-murritzailagorik edo betebeharrak gutxiago ezartzen duenik.

Xedapen horren bidez efizientzia eta efikaziaren printzipioak bermatzen dira, ez baita organo edo organismo berririk sortzen. Eta arreta berezia merezia du azken xedapenetako lehenengoak. Haren bidez, gaikuntza ematen zaio kirolaren arloan eskumena duen Zuzendaritzako titularrari agindua behar bezala garatzeko eta betearazteko behar diren ebazpenak onartzeko.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, agindua gainerako ordenamendu juridikoarekiko modu koherentean antolatzen da. Arau-esparru argia du, sektoreko eragileek erraz ezagut dezaten, nagusiki 2026ko urtarrilaren 1erako prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren betebeharra bete duten profesionalak.

b) Arauaren egitura eta edukia

Agindu-proiektuak xedapenaren titulua, azalpenak eta xedapenak ditu, hamar artikulua, hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta bi azken xedapen barne hartuta.

Aginduaren tituluak xedapenaren edukia islatzen du argi eta garbi, arauaren kategoria, aplikazio-data, agindua eman duen organoko titularrak eta haren edukia adierazita.



Azalpenen zatiak ez du titulurik (zioen azalpena edo hitzaurrea) eta oso laburra da, artikuluen eduki laburrekin bat etorriz. Labur azaltzen ditu gaikuntza legal espezifikoa, lortu nahi den xedea eta eduki orokorra.

Testua ez da kapitulu eta apartatuetan banatu, oso artikulua gutxi daudelako; zehazki, hogeitun artikulua baino gutxiago ditu, eta gidalerroetan kopuru horretatik aurrera gomendatzen da kapituluak erabiltzea.

Lehenengo artikuluan, aginduaren xedea eta aplikazio-eremua arautzen dira.

Lehenengo apartatuak aginduaren xedea ezartzen du, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako prestakuntza espezifikoaren edo esperientzia egokiaren eskakizun gehigarria arautzea.

Bigarren apartatuan, lanbide espezifiko edo egokia izatea eskatzen zaien kirol-monitoreari, entrenatzaileari eta kirol-zuzendariari aplikatzeko eremu subjektiboa arautzen da.

Hirugarren apartatuak ezartzen du agindua ez zaiela aplikatuko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen lehenengo eta bigarren xedapen iragankorretan deskribatutako egoeretako batean egoteagatik gaituta dauden pertsonen.

Bigarren artikuluan, prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko eskakizunak arautzen dira.

Lehenengo apartatuan, prestakuntza espezifikoa aitortzeko aginduak jasotzen dituen gutxieneko esperientzia- edo prestakuntza-orduak betetzeko beharra ezartzen da.

Bigarren apartatuak zehazten du, hasiera batean, prestakuntza espezifikoa tituluen, egiaztatutako edo prestakuntza ofizialen bidez egiaztatutako beharko dela, unibertsitateko masterrak eta lanbide-ziurtagiriak barne.

Hirugarren apartatuan, prestakuntza espezifikoa aitortzeko beste egiaztatutako batzuk zerrendatzen dira.

Laugarren apartatuan, titulazio akademikoa edo generalista lortzeko borondatez egin den lanbide-eremuko prestakuntza ere prestakuntza espezifikotzat hartuko dela.

Bosgarren apartatuak ezartzen du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak, prestakuntza eskaintzarik ez badago edo eskaintza urria bada, gutxieneko kalitate-eskakizunak



betetzen dituzten esperientziak, prestakuntzak, tituluak edo ziurtagiri ez-ofizialak sustatu edo aitortu beharko dituela.

Hirugarren artikuluan, kirol-monitorearen lanbidean, prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko ordu-kopurua arautzen da.

Lehenengo apartatuan, kirol-modalitate edo -azpimodalitate bakarrera espezifikoki bideratuta dauden eta kirol-hastapenean edo oinarrizko mailan egiten diren jardueretan aritzen direnek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen da. Prestakuntza espezifikoa 45 ordukoa da, eta esperientzia egokia 135 ordukoa.

Bigarren apartatuan, kirol-modalitate edo -azpimodalitate bakarrera espezifikoki bideratuta dauden eta hobekuntza teknikoan edo erdi-mailan egiten diren irakaskuntza- edo ikaskuntza-jardueretan aritzen direnek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen da. Prestakuntza espezifikoa 90 ordukoa da, eta esperientzia egokia 270 ordukoa.

Hirugarren apartatuan, nolabaiteko arriskua duten jardueretan, uretan, elurretan, airean, natura-inguruneke beste gune batzuetan, bai eta animaliekin ere, jarduten dutenek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen da. Prestakuntza espezifikoa 90 ordukoa da, eta esperientzia egokia 270 ordukoa.

Laugarren artikulua kirol-entrenatzailearen lanbiderako prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko ordu-kopurua arautzen du.

Lehenengo apartatuak beren lanbidea natura-ingurunean antolatzen diren eta nolabaiteko arriskua duten azpimodalitate anitzeko lehiaketetan edota animaliekin gauzatzen dutenek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen du. Prestakuntza espezifikoa 180 ordukoa da, eta esperientzia egokia 270 ordukoa.

Bigarren apartatuak beren lanbidea kirol-modalitate edo -azpimodalitate bakarrera espezifikoki bideratuta dauden eta hobekuntza teknikoan edo oinarrizko mailan gauzatzen dutenek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen du. Prestakuntza espezifikoa 90 ordukoa da, eta esperientzia egokia 270 ordukoa.

Hirugarren apartatuak beren lanbidea kirol-modalitate edo -azpimodalitate bakarreko erdi-mailako lehiaketetan gauzatzen dutenek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen du. Prestakuntza espezifikoa 180 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.

Laugarren apartatuak beren lanbidea kirol-modalitate edo -azpimodalitate bakarreko goi-mailako edo errendimenduko lehiaketetan edo kategoria horretako taldeetan gauzatzen dutenek



bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen du. Prestakuntza espezifikoa 180 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.

Bosgarren apartatuan, beren lanbidea ikastetxeetan irakastorduetatik kanpo edo beste erakunde batzuetan programatzen diren oinarrizko mailako edo erdi-mailako lehiaketetan gauzatzen dutenek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen da, baldin ikasleen adina bat badator beren ikaskuntza-kualifikazioarekin. Kirol-modalitate edo -azpimodalitate bakarreko lehiaketetan edo natura-ingurunean zein animaliekin egiten diren jardueretan arituz gero, Gorputz Hezkuntzako irakasle izateko beharrezkoa den kualifikazioa eskatuko zaie. Prestakuntza espezifikoa 180 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.

Seigarren apartatuan, beren lanbidea desgaitasunen bat duten pertsonekin gauzatzen dutenek bete beharreko gutxieneko ordu-kopurua arautzen da. Prestakuntza espezifikoa 180 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.

Bosgarren artikuluan, kirol-zuzendariaren lanbiderako prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko ordu-kopurua arautzen da.

Lehenengo apartatuan, kirol-modalitate edo -azpi modalitate bakarreko kirol-hastapeneko edo oinarrizko mailako jardueretarako prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko ordu-kopurua arautzen da.

Prestakuntza espezifikoa 250 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.

Bigarren apartatuan, diziplina bakarreko lehiaketetan kirol-zuzendari gisa jarduteko, betiere hobekuntza teknikoaren mailan egiten badira, jardueretarako prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko ordu-kopurua arautzen da.

Prestakuntza espezifikoa 250 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.

Hirugarren apartatuan Kirol-modalitate edo diziplina bakarreko jardueretan edo ingurune naturalean edo animaliekin egiten diren kirol-jardueretan kirol-zuzendari jarduteko jardueretarako prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko ordu-kopurua arautzen da.

Prestakuntza espezifikoa 250 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.

Seigarren artikuluan, modalitate bakarrera bideratutako kirol-hastapeneko edo oinarrizko mailako eskola-kiroleko jardueretan laguntzaile-eginkizunak egiteko prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren gutxieneko ordu-kopurua arautzen da.

Prestakuntza espezifikoa 250 ordukoa da, eta esperientzia egokia 540 ordukoa.



Zazpigarren artikuluan, prestakuntza espezifikoa eta esperientzia egokia aitortzeko prozedura arautzen da. Erantzukizunpeko adierazpena.

Lehenengo apartatuan, prestakuntza espezifikoa eta esperientzia egokia aitortzeko prozedura zer den arautzen da. Prozedura horren bidez egiaztatzen da legeak eskatzen duen prestakuntza espezifikoa edo esperientzia egokia duela.

Bigarren apartatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko betebeharra ezartzen da. Eredua egoitza elektronikoan dago.

Hirugarren apartatuan, erantzukizun-adierazpenari aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen da, eta ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzen duen Dekretua eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea aplikatuko dira agindu honetan xedatzen ez den guztian.

Zortzigarren artikulua prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren justifikazioari buruzkoa da.

Lehenengo apartatuan, ziurtapen-zentroaren ziurtagiriaren bidez justifikatuko dela ezartzen da.

Bigarren apartatuan, esperientzia egokia justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak zerrendatzen dira:

- a) Soldatapeko langileek Gizarte Segurantzak, mutualitateak edo elkartutako beste erakunde batek emandako ziurtagiriaren bidez justifikatu beharko dute. Ziurtagiri horretan enpresa, kotizazio-taldea eta kontratazio-aldia, eta lan-kontratua edo esperientzia jaso duten enpresaren ziurtagiria jaso beharko dira. Erakunde publikoetako langileek dagokion administrazioaren ziurtagiriaren bidez justifikatu beharko dute.
- b) Langile autonomoek Ekonomia Jardueren Zergako alta-agiriaren edo Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren, mutualitatearen edo antzeko beste erakunderen baten ziurtagiriaren bidez justifikatu beharko dute. Ziurtagiri horretan, dagokion araubide bereziko alta-aldiak, egindako lanbide-jardueraren deskribapena eta jarduera hori egin den denbora-tartea jaso beharko dira.



Hirugarren apartatuan, jarduera borondatezko araubidean egiten denerako justifikazio-araubidea ezartzen da. Kasu horretan, boluntarioak bere zerbitzuak eman dituen erakundearen egiaztagiriaren bidez justifikatuko da. Egiaztagiri horrekin batera, egiaztatzen diren datuak bermatzen dituen dokumenturen bat aurkeztu beharko da nahitaez.

Bederatzigarren artikulua aitortzaren ondorioak arautzen ditu.

Aitortzak ondorio profesionaletarako baino ez du balioko eta ez dakar prestakuntza-prozesurik baliozkotzea edo egiaztatzea. Dagokion pertsonari bakarrik aitortzen zaio prestakuntza espezifiko eta esperientzia egokia duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan inskribatu ahal izateko eta 8/2022 Legean aurreikusitako lanbideetan aritzeko.

Azkenik, hamargarren artikuluan, Lanbide Heziketa antolatzeari eta integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren arabera gaitasun-unitateak ebaluatzeko eta aitortzeko prozedura arautzen da.

Artikulu horren arabera, prestakuntza espezifikoak eta esperientzia egokiak ez dute zerikusirik 3/2022 Lege Organikoaren eta 659/2023 Errege Dekretuaren arabera lan-esperientziaren eta ikaskuntza ez-formalen bidez eskuratutako gaitasun-atalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko administrazio-prozedurarekin.

Aginduak hiru xedapen gehigarri ditu.

Lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen dira jarraibideak erantzukizunpeko adierazpenen ereduak eta gainerako ereduak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dauden eskuragarri, euskaraz eta gaztelaniaz. Erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak beti egongo da eguneratuta, eta interesdunek erraz eskuratu ahal izango dute. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalentzako informazioan eta dokumentazioan bermatu egin beharko dira Sektore publikoko gailu webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 112/2018 Errege Dekretuan ezarritako irisgarritasun-eskakizunak.

Bigarren xedapen gehigarrian, hizkuntza-normalizazioaren esparruko aurreikuspen bat jasota dago. Bertan ezartzen da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko xedez Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak prestakuntza espezifikoak sustatuko dituela Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

Aginduak hirugarren xedapen gehigarri bat du 8/2022 Legearen hamabigarren xedapenean ezarritakoa betetzeko. Xedapen gehigarri horretan, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean



osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 5. artikulua prestakuntza-betebeharrak gehitu dira.

Ekainaren 30eko 8/2022 Legearekin bat, legean araututako lanbideren batean ari diren pertsona guztiek, nagusiki adingabeekin praktikatzen diren kirol-jardueretan bertan egoteko betebeharra dutenean, sexu-indarkeriaren prebentziorako eta genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza dutela egiaztatu beharko dute. Lanbide-jarduna irakaskuntzan gauzatzen dutenen kasuan, beharrezkoa izango da, halaber, hezkidetzako prestakuntza egiaztatzea.

Prestakuntza-ekintzek, halaber, aintzat hartu behar dituzte desgaitasunen bat duten, arraza-, etnia- edo nazio-jatorri desberdina duten, desabantaila ekonomikoko egoeran dauden, LGTBI kolektiboko kide diren edo beste edozein aukera edo orientazio sexual edo genero-identitate duten eta inoren kargura ez dauden adingabeen premia espezifikoak.

Prestakuntza-edukietako bakoitzaren iraupena gutxienez 4 ordukoa izango da. Halaber, baterako prestakuntza eskain daiteke, eta gutxienez 8 ordukoa izango da.

Gutxienerako ordutegi-karga horiek ezartzeko, aintzat hartu dira 2023an Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola gauzatzen ari den antzeko prestakuntza-ekintzen iraupena, adibidez, "Adingabeak babesteko protokoloaren erabilera kirol-inguruneetan" eta "Adingabeak kirolean zaintzeko eta babesteko sentsibilizazioa".

Prestakuntza horiek 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eskatu ahal izango dira, halaxe xedatzen baitu ekainaren 30eko 8/2022 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriak.

Prestakuntza horiek egiaztatzeko prozedura erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztean datza, eta adierazpen horri prestakuntza espezifikoaren eta esperientzia egokiaren arloan agindu honetan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkio, haien izaerarekin bateragarria den guztian.

Aginduak hiru xedapen iragankor ditu.

Lehenengo xedapen iragankorrek ebatzen du 2026ko urtarrilaren 1era arte ez dela eskatuko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 8., 9., eta 10. artikuluetan eta bosgarren xedapen gehigarrian jasotako prestakuntza espezifiko edo esperientzia egokia.

Bigarren xedapen iragankorrek xedatzen du 2026ko urtarrilaren 1era arte ez dela eskatuko aginduaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako prestakuntza.



Hirugarren xedapen iragankorrak xedatzen ditu agindua indarrean sartu aurrekoa prestakuntza espezializatuak eta titulazio akademiko ofizialetara bideratutako prestakuntzen baitan ez daudenak. Prestakuntza eta titulazio horietatik soilik honako hauek sustatutako prestakuntzen egiaztagiriak hartuko dira kontuan:

- a) Administrazio publiko orokorreko zein instituzionaleko zentroak.
- b) Sektore publikoko erakundeetako zentroak, administrazio publikoak ez badira.
- c) Heziketa-zentro ofizialak, publikoak zein pribatuak.
- d) Elkargo profesionaletako zentroak.

Bere aldetik, aginduak bi azken xedapen ere baditu.

Azken xedapenetako lehenengoan, gaikuntza ematen zaio Eusko Jaurlaritzan kirolaren arloan eskumena duen Zuzendaritzako titularrari, bere eskumeneko esparruan, agindua behar bezala garatzeko eta betearazteko behar diren ebazpenak eman ahal izateko.

Azken xedapenetako bigarrenak arauaren indarraldia arautzen du. Irizpide orokorra jarraitu da; hots, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ez dago arrazoirik legeari epe berezirik ezartzeko. Aurrekoa gorabehera, prestakuntza espezifikoa eta esperientzia egokia izateari buruzko informazioa jasotzen duten erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko betebeharra Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa arautzen duen dekretua onartzearen mende egongo da. Dekretu horretan ezarriko dira erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko epeak.

VIII. IZAPIDETZEA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legeak (XOEPL) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek xedapen orokorrak egiteko jarraitu beharreko administrazio-prozedura arautzen du, Gernikako Estatutuaren 10.2 artikulua (autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua) eta 10.6 artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoaren Zuzenbide substantibotik eta berezko antolaketaren berezitasunetik datozen administrazio-prozedurako arauak) emandako eskumena erabiliz.

Era berean, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozesuan kontuan hartu beharko da Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakia, zeinaren bidez izaera orokorreko arau xedapenak izapidetzeko jarraibideak ezartzen diren.



Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatzen dena betetzeko, agindu-proiektua ele bitan idatziko da, jendaurrean modu ofizialean jartzeko.

Xede horrekin, IVAPeko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzuliko du testua, honako hauetan ezartzen den moduan: i) arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren erabiltzailearen eskuliburua; (ii) Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioa (bertan onartzen da zer neurri jartzen diren bi hizkuntzatan idazteko lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak); eta (iii) XOEPLren 4.j), 5, 14.3, 14.5 eta 27.3 artikulak.

XOEPLren 17. artikuluan ezarri bezala, entzunaldi eta informazio publikoko izapideak beti egin beharko dira herritarren eskubide eta interes legitimoen zuzenean eragiten zaienean. Hortaz, 6/2022 Legearen 17. artikuluan ezarritako entzunaldi eta informazio publikoko izapidea egingo da, erakunde desberdinek ekarpenak egin ditzaten (Euskadiko eta lurraldeko federazioek, Euskal Kirol Federazioen Batasunak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, udalerriek, toki-erakundeek eta Euskadiko gainerako administrazio publikoek).

Agindu-proiektua XOEPLn eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, lege-izaera duten arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzeari dagokionez.

Agindu-proiektuaren testua idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarritzat, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta ezarritako araudiaren egokitasuna eta legezkontasuna bermatzeko eskatzen diren kontsulteren eta txostenen emaitzak ere.

Proiektua idazten amaitutakoan, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak aurretiaz onetsi beharko du.

Aurreikusitako erregulazioaren eragin zuzena jaso dezaketen autonomia erkidegoko administrazioek parte hartuko dute prozeduran, XOEPLren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honako nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Hizkuntza Politikako sailburuordearen txostena, xedapen orokorrek euskararen erabilera normalizatzeko zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua bete dadin.



- b) Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren txostena, 217/2024 Dekretuak, urriaren 29koak, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 12.1.n) artikuluan xedatzen duenaren arabera.
- c) Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena, Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duen azaroaren 7ko 220/2000 Dekretuaren 4.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- d) Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiak eginiko legezkotasun-txostena, 6/2022 Legearen 22. artikuluen arabera.
- e) Ekonomia- eta arau-kontrolerako txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena, honako hauetan xedatuaren arabera: (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. artikulua; (ii) 464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak; (iii) XOEPLren 23. artikulua; eta (iv) Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikulua.

Agindu-proiektuaren izapideak bukatuta, eta Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak araua onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat prestatuko da, XOEPLren 24.2 artikuluen arabera. Memoria horretan, aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dira.

Agindu-proiektuaren publizitateari dagokionez, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren izapidetze-jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau publiko egingo da Legesarea lankidetzarako gunean.

Halaber, aurretiaz onartzeko agindua Legesarea partekatuko lankidetzarako gunean argitaratuko da.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera, legean xedatutako publizitate-agindua betetzeko, proiektuaren testua Legegunean argitaratuko da.

Era berean, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikuluen arabera, agindu-proiektu hau onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bukatzeko, instrukzio-organoarekin lotuta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren arabera,



Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan aipatzen diren eskumenak dagozkio Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta sail horretako sailburuari, eta sail berari dagozkio funtzio eta jardun-arloetan indarrean dauden xedapenek bere egiteko ematen dizkioten guztiak ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak xedatutakoaren ondorioz.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoan ageri den egunean.

Amaia Izagirre Díaz

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN

ZUZENDARITZAKO AHOLKULARI

JURIDIKOA

Gorka Iturriaga Madariaga

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN

ZUZENDARIA